
UNITATE
DIDAKTIKOAK
ETA DEFENTSA

STEILAS EPE NAFARROA
2021/01/27



Gaurko saioan:

1. Unitateak sortzen
2. B faseko defentsa

Programazioarekiko zubia

Ekar dezagun deialdia gogora

- Izangaiak duen gaitasun pedagogikoa eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen baloratuko da. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.
- Proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da (%30 A zatiari dagokio, eta %70 B zatiari), eta gainditu ahal izateko, izangaiak gutxienez ere bost puntu lortu beharko ditu, betiere 2,5 puntu lortu baditu gutxienez zati bakoitzean.

Ekar dezagun deialdia gogora

- Izangaiek ordubete izanen dute gehienez unitate didaktikoa prestatzeko. Prestaketarako denbora bukatuta, programazio didaktikoaren defentsa hasiko da (hogeita hamar minutuz gehienez) eta unitate didaktikoaren azalpena (hogeita hamar minutuz gehienez).
- Izangaiaren parte-hartzea bukatu, epaimahaiak programazio didaktikoaren edo unitate didaktikoaren gainean behar beste galdera egiten ahalko dizkio izangaiari; eztabaida horrek hamabost minutu iraunen du gehienez. Izangai bakoitzak, guztira, ordu bat eta hamabost minutu izanen ditu gehienez programazioa eta unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko.

Ekar dezagun deialdia gogora

- **Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea:**
- Izangaiak prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu beharreko unitate didaktikoa bakoitzak aurkeztutako programazioarekin zerikusia izan dezake, edo, bestela, norberaren espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik abiatuta presta daiteke, izangai bakoitzak aukeratzen duena. Lehenengo kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak bere programaziotik hiru unitate aterako ditu zozketaz, eta horietako bat aukeratuko du. Bigarren kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak hiru gai aterako ditu zozketaz bere espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik, eta horietako bat aukeratuko du.
- Unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izan daiteke, eta lotura izan behar du kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko gaitasun unitateei dagozkien amaierako gaitasunekin.

Deialdiak unitateari buruz

- Unitate didaktiko hori prestatzean, deialdiaren VI. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.
- Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, orri batekoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.
- Unitate didaktikoaren prestaketa eta azalpena zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko bigarren probaren kalifikazioaren %70 egingen du. Izangaiek 2,5 puntu lortu beharko dute gutxienez probaren zati honetan haztatu ahal izateko.

Deialdiak unitateari buruz

B) Unitate didaktikoa.

- Unitate didaktikoa egitean honako hauek zehaztu beharko dira: ikaskuntzaren emaitzak, edukiak, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta errekupeazio jarduerak, alderdi metodologikoak eta antolaketakoak, ebaluaziorako erreferenteak, ebaluaziorako prozedurak, ebaluaziorako tresnak eta kalifikaziorako irizpideak eta etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio tresna eta sistemak.
- Unitate didaktikoa, aurreko paragrafoetako alderdiei buruzkoa izateaz gain, lan unitateei buruzkoa ere izan daiteke, eta lotura izan behar du kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko gaitasun unitateei dagozkien ikasketa emaitzekin.

Bigarren hezkuntzako kasuan

- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateetarako alderdiak:
- Unitate didaktikoa egitean honako hauek zehaztu behar dira: ikaskuntzaren helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandar ebaluagarriak, planteatuko diren irakasteko/ikasteko jarduerak, alderdi metodologikoak eta antolaketakoak, ebaluaziorako prozedura eta tresnak eta kalifikaziorako irizpideak, bai eta gaitasunak garatzearekin duten lotura ere.

**NOLA JASOKO DUGU HORI
GURE PROGRAMAZIOAN?**

UNITATEEN LEKUA GURE PROGRAMAZIOAN

- ❑ 10 Unitate didaktikoren hezurdura jasoko dugu gure programazioan.
- ❑ Espazioak agintzen du beraz, 2 orrialde inguru eskainiko dizkiogu “txantilo” modura.

2

PROGRAMAZIOA ETA UNITATE DIDAKTIKOAK AURKEZTU
BEHARREKO LANAREN AURKIBIDEA ARDATZ HARTUTA



1. SARRERA: PROGRAMAZIOA, KONTZEPTUA, JUSTIFIKAZIOA
2. TESTUINGURUA eta IKASTETXEA:
 - Ikastetxearen kokapena eta ezaugarriak. Gela eta taldearen ezaugarriak
 - Ikastetxeko proiektuak: Hezkuntza Proiektua, ICP eta Hobekuntza Plana.
3. CURRICULUM OSAGAIK
 - 3.1 OINARRIZKO GAITASUNAK
 - 3.2 ETAPAKO HELBURUAK
 - 3.3 EDUKIAK
 - 3.4 EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA STANDARRAK
4. METODOLOGIA
5. EBALUAZIOA
6. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA
7. UNITATE DIDAKTIKOAK
8. BIBLIOGRAFIA

ETA ZER DIRA UNITATE EDO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK?

Sekuentzia DIDAKTIKOAK irakaste-ikaste prozesu oso eta artikulatibati zuzendutako lan unitatea da.

Unitate edo sekuentziak osatzeko, kontuan hartu behar dugu honakoek baldintzatzen dituztela:

A. Oinarrizko Curriculum Diseinuak (Foru Dekretuak)

B. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuak.

C. Irakasleen teoriak/esperientziak

Beraz, unitateak sortzea, koherentzia ariketa bat da.

Programazioan jasotako curriculum osagaiak eta gure ikastetxe zein taldearen galbahea aplikatzen sortuak.

Horretaz gain, sekuentziak osatzeko kontuan hartu beharreko alderdi batzuk azalduko ditugu jarraian.

ETA ZER DIRA UNITATE EDO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK?

Gure sekuentzien atzean dagoen planteamendu pedagogikoa azaldu ostean, gure programazioko sekuentziaren diseinuari ekingo diogu.

Lan horretan lehen urratsa sekuentziak edo unitateak ikasturtean zehar banatzea izango da.

Horretarako ikasturteko egutegia hartu eta 10 zatitan banatuko dugu.

Kontuan hartu lan horretan irakasgaiak/moduluak zenbat ordu dituen aintzat hartu beharko dugula.

Sekuentziek ez dute zertan saio kopurua izan behar, baina komeni da banaketa homogeneo bat izatea eta, are gehiago, planteamendu homogeneo bat. Izan ere, planteamendu homogeneo batek aukera emango digu sekuentziak errazago defendatzeko.

Egutegian banatu ondoren, sekuentziak hurrenkeran definitzen hasiko gara. Horretarako, komeni da sekuentziek barne eta kanpo koherentzia eta kohesioa izatea.

Unitateak osatzen

TXANTILOIKO ELEMENTUAK

ETA HAIEN IDAZKETA IKUSPEGI
SOZIOKONSTRUKTIBISTATIK

UNITATEAK ZENBAKITZEA

- ❖ Txantiloietan jasotako Unitateak zenbakituko ditugu. Aukeran izenburua jartzea ere. Kontuan hartu zozketarako beharrezkoak direla.



AURREKO DEIALDIAK:

Programazio didaktikoaren edukia

Ez da denbora espezifikorik egongo azalpenaren aurretik prestatzeko. Hala ere aurkezpenerako egoki irizten den material osagarria erabili ahal izango da, pertsona bakoitzak jarritakoa. Kopia bat entregatuko zaio epaimahaiari aurkezpen ekitaldian eta beste kopia berdin-berdin bat, azalpen ekitaldian.

Espezialitate guztiak (Hezkuntza Orientabidea izan ezik): maila edo etapa baten ikasturteari dagokion espezialitatearen arlo, gai edo moduluaren curriculumari eginen dio erreferentzia.

Zehaztuko ditu helburuak, gaitasunak, edukiak, metodologia didaktikoa, eskubide bereziak dituzten ikasleentzako arreta neurriak, ikaskuntza estandar ebaluagarriak eta, hala badagokio, gaitasunak zer mailatan eskuratu diren eta helburuak zer mailatan bete diren ebaluatzeko irizpideak.

Gehienez 50 orrialde izanen ditu, DIN-A4, alde bakarrean idatzita, eta gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakitu, VIII. eranskinean jasotako curriculumetan oinarrituta.

TXANTILOIKO ELEMENTUAK

CURRICULUM ELEMENTUAK (ZER)

- Ikaskuntzaren emaitzak
- Edukiak

JARDUEREKIN LOTUTAKOAK

- Irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak
- Errekuperazio jarduerak
- Alderdi metodologikoak eta antolaketakoak

EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKOAK

- Ebaluaziorako erreferenteak
- Ebaluaziorako prozedurak
- Ebaluaziorako tresnak eta kalifikaziorako irizpideak
- Etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio tresna eta sistemak.

Nola txertatu txantiloï batean

Adibide bat ikus ditzagun:

- ❑ https://ivac-eei.eus//upload/cf/documentos/13/adg_t_ges_adm_ud_0440_e.pdf
- ❑ Baliagarria zaigu? Zer falta du txantiloïak?

DBHko UNITATEA

- Unitate didaktikoa egitean honako hauek zehaztu behar dira: ikaskuntzaren helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandar ebaluagarriak, planteatuko diren irakasteko/ikasteko jarduerak, alderdi metodologikoak eta antolaketakoak, ebaluaziorako prozedura eta tresnak eta kalifikaziorako irizpideak, bai eta gaitasunak garatzearekin duten lotura ere.

ETAPAKO HELBURUEI EKARPENA

- ❖ Zein etapako helburu landuko ditugu gure unitatean?
- ❖ Letraz adierazi programazioan jasotakoa oinarri hartuz.

OINARRIZKO GAITASUNEI EKARPENEA

- ❖ Zein oinarrizko gaitasunei egingo die ekarpena gure unitateak?
- ❖ Zenbakiekin jasoko dugu, programazioan erabilitako zenbaki berekin.

IKASKUNTZA HELBURUAK

Zer dira ikaskuntza helburuak? Irakaste-ikaste prozesuaren bukaeran ikasleengandik espero dugun emaitza

IKASKUNTZA HELBURUAK

HELBURUAK IDAZTERAKOAN:

Kontuan hartu:

- ✓ Ikaslea subjektua
- ✓ Eraitza ahal den eta zehatzena
- ✓ Portaera ebaluagarria
- ✓ Portaerari lotutako arauak / baldintzak / irizpideak

Osatzen dira: Ikaslearen gaitasuna + baldintzak/irizpideak

Azaltzen dira:

- ✓ Metodologiaren aukeraketa oinarritzeko
- ✓ Ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa ahalbideratzeko
- ✓ Ebaluazioa ahalbideratzeko eta zehazteko

EDUKIAK

ta gaitasunak eskuratzen laguntzen duten ezagutzen, abilezien, trebetasunen eta jar

EDUKIAK

EDUKIAK IDAZTERAKOAN:

Adierazten dute: Irakaste-ikaste prozesuan gaitasunak garatzeko ditugun euskarriak.

Banatzen ditugu:

1) Prozedurazkoak:

Eskuratzen ditugu: Eredu onetik abiatuz. Pausu ezberdinetan trebatuz. Ariketak eginez testuinguru ezberdinetan. Egindako aktibitateei buruz hausnartuz.

2) Kontzeptualak:

Dakiguna, gertaerak: ikasten dira errepikatuz. Dena edo ezer ere ez.

Kontzeptuak/Printzipioak: Gertaera, objektu, ikurren orokortzeak dira. Ulertuz eta erabiliz, esanahia progresiboki zabalduz ikasten dira.

3) Jarrerazkoak: Gure portaera definitzen eta ahalbidetzen dituzten edukiak

Ikasten dira: Edukiak barneratuz eta eguneroko ekintzetarako irizpide moralak garatuz.

JARDUERAK

Edukiak, ebaluazio irizpideak eta estandarrak jaso ondoren, horiek garatu eta helburuak gauzatzeko jarduerak jasoko ditugu.

Jarduerak zehazteko garaian, komeni da ondorengo egitura aintzat hartzea:

https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/320_curriculum/3202015003e_Pub_BN_unitate_di_daktikoak_e.pdf

JARDUERAK

- ❑ Jarduerak saioka azaltzea komeni da. Hau da, saio bakoitzean zer egingo dugun azalduz eta saio horiek ikusi ditugun faseetan bereizten.
- ❑ Jarduerekin batera, taldekatzeak azaltzea komeni da. Hau da, jarduera hori bakarka, binaka, launaka, tarde handian edo delakoa. Egitura kooperatiboak erabiliz gero, egitura edo jarduerak zehaztu ere.
- ❑ Eta, taldekatzearekin batera, jarduera non eramango den aurrera eta baliabideak aipatzea komeni da.

JARDUEREN SEKUENTZIAZIOA

HELBURU, EDUKI ETA JARDUEREN SEKUENTZIAZIOA:

Helburuek eta edukiek sekuentziazioa behar dute eta, horretarako honako irizpideak erabiltzen dira:

1) Psikopedagogikoak:

- Gauza soiletik konplexura
- Gauza hurbiletik urrunera
- Gauza partikularretik orokorrera
- Gutxien formalizatuenetik gehien formalizatura
- Globaltasunetik berarioazkotasunera
- Gauza zehatzetik abstraktura

2) Epistemologikoak: Arloaren barne hierarkia

3) Praktikoak:

- Egoera
- Zeregin errazak --- konplexuak
- Aniztasunaren trataera
- Taldearen berezitasunak
- Aurretik ikasitakoa

METODOLOGIA eta ANIZTASUNA

Metodologiaren atalean, hainbat aspektu jaso ditzakegu: Saioen beraien antolaketa faseei dagokionez, edota unitatean erabiliko dugun metodologia (arazo egoera, proiektua, ikerketan oinarritutakoa, mintegia eta abar.) Horrekin batera, aniztasun jarduerak ere jasoko ditugu.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa zehazteko garaian hainbat elementu jasoko ditugu:

Ebaluazio faseak eta aktoreak. Gogoratu curriculumak ebaluazio faseei buruz jasotakoa.

Ebaluazio irizpideak eta estandarrak.

Ebaluazio tresnak.

<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/curriculo/hizkuntzak/euskara/7saioa/ebaluazioa.ppt>

UNITATE DIDAKTIKOARE EBALUAZIO IRIZPIDEAK

AZTERTZAILEEN BETAURREKOAK JANTZI



Unitatearen ebaluazio irizpideak

B zatia.-Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea.

- Alderdi orokorrak.
- -Unitate didaktikoa justifikatzea eta hari testuingurua ematea programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.
- -Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.
- -Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.
- Helburuak, edukiak eta metodologia.
- -Helburuak, edukiak eta ikaskuntzaren emaitzak ongi planteaturik daude eta koherenteak dira beren artean. Horiek guztiek gaitasun orokorrarekin eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialekin, bai eta gaitasun unitateekin ere, daukaten harremana zehazten da.
- Proposatutako metodologia berritzailea da

Unitatearen ebaluazio irizpideak

Jarduerak.

- ❑ Jarduerak motibagarriak dira eta hainbat zailtasun maila dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko.
- ❑ Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.
- ❑ Jarduerak koherenteak dira eta ikaskuntzaren emaitzak / amaierako gaitasunak lortzearekin lotzen dira.

Ebaluazioa.

- ❑ -Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak ezarri dira, indarrean dagoen araudiari egokituak.
- ❑ -Unitate didaktikoak programazioaren osotasunean duen pisua ezarri da.

Momentu erabakiorra

B faseko defentsa

Programazio didaktikoaren defentsa. Bi atal, baina osotasun bat.



PROGRAMAZIOAREN DEFENTSA

Gogoratu deialdiak zer dion:

“Izangaiek ordubete izanen dute gehienez unitate didaktikoa prestatzeko. Prestaketarako denbora bukatuta, programazio didaktikoaren defentsa hasiko da (hogeita hamar minutuz gehienez) eta unitate didaktikoaren azalpena (hogeita hamar minutuz gehienez). Izangaiaren parte-hartzea bukatu, epaimahaiak programazio didaktikoaren edo unitate didaktikoaren gainean behar beste galdera egiten ahalko dizkio izangaiari; eztabaida horrek hamabost minutu iraunen du gehienez. Izangai bakoitzak, guztira, ordu bat eta hamabost minutu izanen ditu gehienez programazioa eta unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko.”

Defentsaren hurrenkerak "gure sekuentziaren" defentsa baldintzatuko du. Izan ere, aurretik egin dugun programazioaren defentsaren "isla" izango da gure aurkezpena.

Horrek esan nahi du, bai programazioaren zein unitatearen defentsak auzpezen oso eta bakar gisa hartu behar ditugula.

PROGRAMAZIOAREN DEFENTSA

Horrek funtsean esan nahi du, bi aurkezpenen arteko koherentzia funtsezkoa dela. Hau da, programazioan ezarri ditugun taldearen ezaugarriak, ikastetxearenak, aipatun dugun metodologia eta hezkuntza oinarriak eta ebaluazioaren funtzio hezitzailea gure unitateetan jasota agertu behar dira.

Beraz, guk esan badugu gure herriko "kultura ondarea" oso oparoa dela, gure sekuentzietan agertu beharko da.

Gainera, hori arrazoi psikopedagogeekin jantziko du, gertukoa lantzeak eta baloratzetik, urrutikoa baloratzera joango baikara. Edota, ondarearen testuinguru historikoa lantzerakoan, gure inguruko historiatic abiatu eta urrutikora eramango gaituelako.

Izan ere, deialdiak ongi dioen bezala, oposaketan funtsa gure gaitasun pedagogikoa azaltzean datza.

PROGRAMAZIOAREN DEFENTSA

Ikuspegi praktikotik, oso garrantzisa da sekuentziak ongi diseinatzea eta guztiek barne-logika bat izatea eta metodologia bera erabiltzea.

Gainera, ziurtatu beharko dugu, unitate guztiek balioko digutela konpetentziak lantzeko eta eduki mota desberdinak (kontzeptualak, prozedurazkoak, jarrerazkoak) jorratuz lortuko dugula hori.

Ariketa hori ongi osatzen badugu eta gure sekuentzia urte osoko logika batean kokatzen bada; sinpleenetik konplexura badoa; gertukotik urrunekora; zehatzetik abstraktura eta abar, gure aurkezpenak zentzua hartuko du.

Izan ere, sekuentzia azaltzerakoan, jarduerak azaltzean baino, jarduera horien zergaitia azaltzen saiatuko gara.

Hau da, zenbait edukiren eskema egiterakoan, prozedura jakin batzuk praktikan jartzeaz gain, eduki kontzeptualak finkatzeko prozesuan egongo naiz.

Edota, eskutitz formaleko zenbait formula errepikatuz kontzeptuzko edukiak landuko ditut.

Gainera, bukaeran ekoizpen bat badago, konpetentziak mobilizatzen egongo gara, bai aplikazioaren ikuspegitik, bai eta proiektu horren aurkezpenaren alderdi komunikatiboa lantzen.

BAINA NOLA?

Programazioa azaltzeko gidoi bat osatu. Programaren funtsa zein den kontuan harturik, ikasleek ahalik eta arrakasta handiena lortzea, hori lortzeko planteamendua azalduko dugu. Funtsean, gure aurkezpenean NORI, ZER eta NOLA galderei erantzun behar diogu.

Ez dugu dena irakurri behar, galdera horiek erantzuten saiatu behar gara, gure programazioaren indarguneetan zentratuz.

Oso garrantzitsua eta lagungarria da eskema osatutakoan, defentsaren entseguak egitea. Denboraren kudeaketa funtsezkoa da ariketa horretan. 30 minutuz hizketan aritzea luze iruditu dakiguke, baina ez da horrenbeste.

Programazioan material osagarria erabili daiteke. Zuek aukeratu erabili edo ez. Baina erabiltzen duzuen hori aurkezpenaren aberasgarri behar du izan.

Baliabide digitalak erabiltzea ongi baloratu beharreko kontua da, prestatzeko denbora gure aurkezpen denboratik kenduko baizaigu.

BAINA NOLA?

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, orri batekoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Zer jaso orri horretan? Unitate edo sekuentzia bakoitzak ikaskuntza helburuak ditu eta horiek dira garrantzitsuenak. Izan ere, horiek definitzen dute zer espero dugun gure ikasleengandik.

Beraz, aurkezpenari begira, zuen unitatea azaltzen joan, lortu nahi diren ikaskuntza helburuak ardatz hartuz. Izan ere, horiek markatuko baitigute gure unitatearen hurrenkera.

Ez ahaztu hurrenkera didaktikoa azaltzea, hau da, zergatik basieren aurrezagutzak, gero garapena...

Jardueren azalpenean baino, haien aukeraketaren zergaitian zentratuko gara.

ANIMO ETA ZORTE ON!